

Gure Zirkuko kideek zabalduko dute gaur Txotx denboraldia Alorrenea sagardotegian

Kronika - Erredakzioa 2025ko urt. 15a, 00:00

Entzun ▶ ▼



1994garren urtean hasi zen ekitaldiak 32garren edizioa beteko du eta ohiko egitaraua prestatu da eguerditik aurrera.

Txotx denboraldia eta beraz sagardo kupelak gaur irekiko dituzte ofizialki Alorrenea Sagardotegian. Gure Zirkuko kideak izango dira aurten denboraldiko lehenengo sagardoa probatzeko aukeratuak eta *Gure sagardo berria* esaldia oihukatuko dutenak. Aurretik prentsaurrekoa eskainiko da, 2024ko uztaren ezaugarriak aurkezteko. Gure Zirkuko kideak, ohiko sagarrondo bat landatzeko ekitaldi sinbolikoa ere izango da Alorrenea sagardotegira abiatu aurretik.

Egun osoko plana izango da gaur, eta bertan elkartuko dira sagardoaren munduko eragile guztiak. Horiekin batera, Astigarragako kultur eragileek hartuko dute parte, ohiko sagar dantzarekin, esaterako. Soka dantzan partehartzera gonbidatuko dituzte Gure Zirkuko kideak sagardotegira sartzeko. Bertsoek ere izango dute tarte irekiera ekitaldian, Agin Laburu astigartarra eta Joanes Illarregi arituko baitira kantuan.

EGITARAUA

GAUR

11:30-12:00 Akreditazio banaketa Erribera Kulturgunean.

12:00 Prentsaurrekoa Erribera Kulturgunean, 2024ko uztaren ezaugarriak, sagardo berria eta sagardoaren sektoreko gertaera garrantzitsuenak aurkezteko.

12:45 Gure Zirkuk sagarrondo bat landatzeko ekitaldi sinbolikoa Erribera Kulturgunean.

13:30 Txalapartarien deiarekin sagar dantza dantzatuko da Alorrenean eta ondoren sagardogileek eta kultur taldeetako ordezkariak Gure Zirkuarekin batera soka dantzatuko dute.

13:45 Alorrenea sagardotegian, Gure Zirkuk sagardo berria dastatuko du 'Gure Sagardo Berria' oihukatuz eta 2025eko Txotx denboraldiaren hasiera ofiziala egingo da.

TXOTX IREKIERA
PROTAGONISTAK


- 1994 Andoni Egaña
- 1995 Joxe Mari Bakero
- 1996 Javier Clemente
- 1997 Julian Retegi
- 1998 Miguel Indurain
- 1999 Juan Mari Arzak
- 2000 Pedro Miguel Etxenike
- 2001 Joane Somarriba
- 2002 Martin Fiz
- 2003 Abraham Olano
- 2004 Periko, Mikel eta Xabi Alonso
- 2005 Ainhoa Arteta
- 2006 Jose Luis Korta
- 2007 Juan Martinez de Irujo
- 2008 Andoni Luis Aduriz
- 2009 Aimar Olaizola
- 2010 Real Sociedad
- 2011 Karlos Argiñano
- 2012 Julian Iantzi
- 2013 La Oreja de Van Gogh
- 2014 Kalakan
- 2015 Loreak filmaren egileak
- 2016 Aritz Aranburu
- 2017 Eneko Atxa
- 2018 Alberto Iñurrategi
- 2019 Olatz Arrieta
- 2020 Izaro
- 2021 Ander Gonzalez eta Gabriel Uriarte (A bocados)
- 2022 Amak taldea
- 2023 Aitziber Garmendia eta Jon Plazaola.
- 2024 Iñigo Etxezarreta (ETS taldea)

[Gizartea Astigarraga](#)

Kronika egunero, euskaraz eta doan jasotzen segi ahal izateko, Kronikakide gehiago behar dira, eta zer esanik ez, proiektu komunikatibo sendo eta profesional bat garatu nahi badugu.

Egin zaitez KronikaKide!

Erantzun



Ikusienak



[Oiartzabalen eta Berrondoren ereserkiak estreinatu dituzte](#)

Kronika - Erredakzioa
urt 22, 00:00 [Hernani](#)

[2025erako Oporrak Bakean kanpaina aurkeztu berri dute Donostian](#)

Kronika - Erredakzioa
urt 22, 00:00 [Hernani](#)

[Xabat Pagola nagusitu zen Tabernetakoan, buruz burukoan Ahetzerekin kantatuta](#)

Kronika - Erredakzioa
urt 21 [Hernani](#)

[Santa Agedako entsaioak etzi hasiko dira](#)

Kronika - Erredakzioa
urt 22, 00:00 [Ereñotzu](#)

[Pentsiodunek sinadurak bilduko dituzte bihar, ferian](#)

Kronika - Erredakzioa
urt 22, 00:00 [Hernani](#)

[Asfaltatze lanak, gaur Zinkoenean eta Agustindarren plazan](#)

Kronika - Erredakzioa
urt 22, 00:00 [Hernani](#)

Kronika.eus

[Dobera Euskara Elkartea](#)

Larramendi kalea 11, Hernani

Tel.: 943 33 08 99 · 688 660 714 · [kronika\[ABILDUA\]kronika.eus](#)



Codesyntaxek garatua

[HONI BURUZ](#) [LEGE OHARRA](#) [PUBLIZITATEA](#) [ARAUAK](#) [HARRERMANETARAKO](#) [RSS](#)

 [Gipuzkoako Foru Aldundia](#)

 [Hernaniko Udal](#)

 [Astigarragako Udal](#)

Ereñotzuko

Auzo Udala


GOIZUETAKO UDALA


ARANOKO UDALA



Gertuko informazioa, euskaraz

- [AIARALDEA](#) [AIKOR](#) [AIURRI](#) [ALEA](#) [AMEZTI](#) [ANBOTO](#) [ANTXETA IRRATIA](#) [ATARIA](#) [AZPEITIA GUKA](#) [AZKOITIA GUKA](#)
- [BARREN](#) [BEGITU](#) [BERRIKETAN](#) [DROGETEN ITTURRI](#) [ERRAN](#) [EUSKALERRIA IRRATIA](#) [GEURIA](#) [GOIENA](#) [GOIERRI TELEBISTA](#)
- [GUAIXE](#) [GUKA](#) [GUKA TELEBISTA](#) [HIRUKA](#) [KRONIKA](#) [MAILOPE](#) [NOAUA](#) [OIZMENDI TELEBISTA](#) [ORIO GUKA](#) [PLAENTXIA](#)
- [TXINTXARRI](#) [URIOLA](#) [ZARAUTZ GUKA](#) [ZUMAIA GUKA](#) [28 KANALA](#)

[Matx](#) [Gurean](#) [Plazanbazan](#) [Ttap](#)

[Tokikom publizitatea](#)